

Zabaldu mezua

Azaroaren 26an, larunbata, [HHko ATE IREKIAK](#) egingo ditugu. Gure proiektua ezagutarazi eta ikasleak gureganatze aldera, zuen inguruan zabaltzeko eskatzen dizuegu. Izan ere, ikastolako kide guztion keinu txiki batek oihartzun handia eragin dezake. Zabaldu mezua!



Negulekuak gure Ikastolan

Udaberrian eta udan bezala, aurtengo neguko oportunitate egonaldiak izango ditugu gure Ikastolan. Bera Bera elkartearekin batera elkarlanean antolatuta ditugu, eta gure ikasleek gure espazioetan euskaraz aisialdiaz gozatzeko aukera izango dute. HH3-4-5 eta LHko ikasleek izango dute izen emateko aukera, eta bi txanda izango dira, abenduaren 26tik 30era bata, eta urtarrilaren 2tik 5era bestea. Informazio gehiago eta izen-emate galdetegia hurrengo Atarietan izango dituzue.



Ikastolak herriari

Datorren azaroaren 25ean **Ikastolak Herriari** ekimenaz gozatzeko aukera izango dugu, Bilbon. Oraingoan, Iruñeko Jaso Ikastolaren SUTAN musikala ikusteko aukera izango dugu, Iruñeko Gazte Orkestrarekin batera. Familia guztiarentzako ikuskizun bikaina! Zirkularra.



Badator Euskaraldia!

Gurasoen Euskara Batzordeak parte hartzea animatzen zaituztegu familia guztiak. Haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragiteko, ezinbestekoa da helduen eredu eta inplikazioa. Horregatik, azaroaren 18tik abenduaren 2ra, hitzez ekiteko deia egiten dizuegu belarriprest eta ahobiziei. Oraindik izena eman ez duzenok, [hemen](#) duzue aukera. Datozen asteetan, euskararen erabilera sustatzeko ekimenen berri emango dugu, Euskaraldira nahiz aurrera begira.



San Martin eguna

"Azaroak 11, San Martin eguna, hauxe da zoritxarra gertatu zaiguna...". Txerrien ahotsetik abestu ditugu gaur San Martin eguneko bertsoak Soroan, eta polit-polit apaindu ditugu, exera eramateko!



Kazetari Bretxan

Ostegunean, LH 4ko ikasleok Bretxako azokara joan ginen baserriarrak elkarriketatzera. Garaian garaikoa jatea eta bertako produktuak kontsumitzea oso garrantzitsua dela ikasi genuen. Gainera, sagarrak, intxaurrak, gaztainak eta abar erosi genituen, eta baita gustura jan ere!



XXI. menderako prest

Azterketak amaitu ostean, bi eguneko erronka bati aurre egin diogu Batxilergo 1eko ikasleok. Modu kooperatiboan lan eginez, XXI. mendeko gizartearen bizitzeko behar ditugun ezaugarrien inguruko hausnarketa egin dugu, Ikastolen irteera profilean oinarrituz, eta erronka borobiltzeko, duela 10 urteko gure haurrari mezu bat idatzi diogu, kontuan hartu beharrekoak azalduz.




Orientazio akademikoa

Orientazio akademikoko saioak izan ditugu Batxilergo 2ko ikasleok aste honetan. Batetik, hainbat unibertsitatetako adituak etorri dira graduen inguruko informazioa ematera, eta, bestetik, Ikastolako orientatzaile akademikoak gure etorkizuneko ibilbideei buruzko saioak eskaini dizkigu. Laguntza aparta une erabakior honetan!



OHARRAK / AGENDA:

- LH3: Haur Danborradan parte hartzeko aukera. [Zirkularra](#).
- LH5: Eureka zientzia museora irteera goizpasa 13:30ak arte. Azaroak 16.
- **BATXILERGOA**: 1. ebaluazioko buletinak ikusgai [Alexian](#). Azaroak 18.
- **Eskola Kirola**: [4. jardunaldia](#).
- **Zurrimendi**: Azaroko [irteera](#). Azaroak 20.
- **Helduen Danborrada**: Guraso eta langileentzako [izen-ematea](#) zabalik. Azken eguna azaroak 20.
- **Literaktum txikia**: [Informazioa](#).
- **Ipuin-kontalarien VIII. maratona**



@zurriolartetarte

